

Preso bat hilda aurkitu dute Zaballan

ALEA :: 15/03/2025

35 urte inguruko gizon gasteiztar bat hil da Zaballan, Salhaketa Araba elkarteak baieztatu duenez. Bederatzi pertsona hil dira EAEko espetxeetan eskumena Eusko Jaurlaritzak hartu zuenetik, 2021ean.

Salhaketa Araba elkarteak jakinarazi du preso bat hil dela Arabako espetxean, Zaballan. Gaur goizean topatu dute ziegan. Gasteiztarra zen hildakoa, 35 urte ingurukoa. Heriotza salatzeke elkarretaratzea deitu dute datorren asteazkenerako, martxoak 19, 13:00etan Andre Maria Zuriaren plazan.

Errespetu moduluan zegoen preso, modulu "gatazkatsuan", eta medikazio psikiatrikoa jasotzen ari zela adierazi du Salhaketak. Presoen eskubideen aldeko kolektiboak ondorioztatu du suizidioaren aurkako protokoloa ezarria ziotela presoari, beste preso batekin baitzegoen ziegan. Protokolo horren arabera beste preso bat sartzen dute ziega berean "babes" neurri gisa. Salhaketatik ohartarazi dute bigarren preso hau ez dagoela trebatua osasun eta medikuntza lanetan, eta historial psikiatrikoa duen pertsona batek arreta berezia behar duela.

Salhaketak fiskaltzari exijitu dio ofizioz hasi dadila heriotza hau ikertzen, eta baita azken urteetan emandako gainerako heriotzak ere.

2021ean hartu zuen Eusko Jaurlaritzak espetheen eskumena, eta bederatzi pertsona hil dira ordutik EAEko kartzeletan. Salhaketatik gaitzetsi egin dute kartzeletako osasun arreta, eta sarbidea mugatua izaten dutela presoek. Salatu dute, era berean, "sistematikoa" izan dela espetxeetako ordezkariak heriotzak izkutatu izana kanpoaldera.

Gardentasun falta egotzi die Salhaketak euskal espetxeetako arduradunei, eta berehalako neurriak hartzera deitu ditu Espetxeetako Zuzendaritza eta gobernua. Gainera, presoen eskubideen aldeko elkartetik ohartarazi dute kartekek "eragin suntsitzailea" dutela barneratuen osasun mental zein fisikoarentzako.

<https://eh.lahaine.org/preso-bat-hilda-aurkitu-dute>